

## Koru Garmendia omendu zuten Sasoetako jaialdian

16 uretatan Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko zuzendari izan den Koru Garmendia omendu zuten larunbatean ikasturte amaierako jaialdian. Hasteko agurra dantzatu zioten, ondoren beste irakasleek bertso batzuek kantatu zizkioten eta gurasoen elkarteak oparia eta lore sorta eskaini zion ekitaldi hunkigarrian. /4



# Lasarte-Oria Bizirik plataforma errausketaren aurka Donostian

Giro onak lagunduta jendetsua eta alaia izan zen manifestazioa

Jende asko bildu zen atzo igandea, eguerdian Boulevard-etik abiatuta Donostiako kaleetan egin zen errausketaren aurkako manifestazioa. Aurretik Porrotx, Petra eta hainbat haur zihoazen euren patin eta bizikletekin, ondoren hainbat lagun pankarten atzetik, tartean batukada eta manifestazioaren bukaeran hipodromoko zaldiak, guztiak "Moratoria, osasunaren alde, no a la incineradora" leloarekin bat eginez. Jendetsua eta alaia izan zen Errausketaren aurkako plataformek deitutako manifestazioa. Lasarte-Oria Bizirik plataformako hainbat lagun ere bertan izan ziren bi pankartatan errausketa salatu eta atez ateko bilketa aldarrikatuz.



Lasarteoriarrek bi pankarta eraman zituzten Donostiako manifestazioa.

## Albokaren emanaldi borobila

Ama Brigitarren komentuko eliza bete egin zen, atzo, igande eguerdian Alboka, Alboka txiki eta Txepetxa abesbatzek eskaini zuten emanaldia ikusteko. Bildutakoek majo gozatu zuten hiru taldeek abestutako mezetako kantu eta kantu tradizionalekin. Folklorea izan zen nagusi, bai Euskal Herriko abesti ezagunak eta baita kanpokoak ere. 12:30etan hasi eta ordubiak inguruan kontzertua bukatu eta gero kalean jarraitu zuten Alboka abesbatzakoak euren abestiak eskaintzen. Jada kantu herrikoietara pasa ziren. •



ALBISTEA /3

Sanpedroetarako egitaraua aurkeztu du sorgin jaien batzordeak


KULTURA /5

Hainbat etxeen maketak jarri ditu Patxi Altunak Kultur Etxean

Ostiraleko zenbaki berezian aurtengo San Pedro Jaietako egitaraua eta beste hainbat informazio

## BERTAKO FABRIKAZIOA

TRIPAKIAK- SALTXITXAK  
ODOLKIA- SOLOMO ONTZUTUA  
SOLOMOA BARATXURITAN- BAJERRI PATEA  
BASURDE BURUA  
ETXEKO TXORIZOA  
TXISTORRA



- ZATIKAKETA ARETOA
- URDAIGINTZA LANTEGIA
- BILTEGI HOZKAILUDUNA

# ADURIZ DE LASARTE S.A

LOIDI BARREN KALEA 3 • LASARTE-ORIA • TEL.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451



# Generoa bertsogintzan

Eskoletan bertsolaritza irakasten jaso duten esperientziaz aritu dira hiru astetan generoari buruz Unai Muñoa eta Amaia Agirre. Bi hausnarketa hauekin eman diote amaiera momentuz elkarren arteko jardunari.



## Unai Muñoa Amaia Agirre

El corazon? Inoiz baino osasuntsuagot

Nik ez zekinat konszientziatik datorren edo ez kontzientzia hitza, baina erabat desberdinak direla fijo, bai funtzionalki behinik behin.

Emakume-gizon arteko botere-harremanak oso markatuak ditun kulturalki eta politikoki. Funtzioak eta rolak banatu zaizkigun gisan, gure jarrerak eta estrategia personalak egokitu dizkinagu horretara, besteak beste, hori irakatsi digutelako. Esan-guratsua egiten zaidan, aukera guztiak posible direla ematen duen gizarte faltsu honetan, nola heltzen diogun lehengoari, geure ongizatea aintzat hartu gabe. Zeren, auzi honetan, ez dun klabea berdintasunaren aldarri politikoa eskaparategi kanpora; hori ere bai, baina, benetan funtsezkoak norbere zoriona eta garapen pertsonala ditun, gizon zein emakume. Horrek motiba gaitzak aldaketara, norbere hutsuneak direla jabetzek.

Aldarrikapenak eta ideologiak hainbeste pisu duen herri txiki honetan inkoherentziak barneratzea eta onartzea errazegia egiten zaigula iruditzen zaidan. Zertarako balio du pankarta baten atzean jartzeak norbera ez bada mugitzen? Esaldi ponpoxo eta borobilek baino gehiago seduzitzen din ereduak, eta hortik ez ote gabilta eskas antzean? Bertsogintza munduan aukera paregabea dinagu bestelako egiak mahai gaineratzeko. Garenetik eta hitzetik, ez dun erronka makala gero. Bertsoskoletan lan handia dinagu egiteko.

Gehiegitan erruari begiratzen zio-

nagu, eta, nire uste apalean, horrek ez din ezertarako balio. Logika dun erreparatu beharrekoa, norbere ibilbidetaren logika eta horren baitan egun garena, bizitutakoaren ondorioak, alegia.

Egun gutxi dira Avatar pelikula ikusi dudala eta bigarren aldiz ikusteko irrikan nagon. Pandoran, guztia konektatuta zagon. Landareak, gizakiak, animaliak, zuhaitzak, gizakia... Azken batean, Natura eta haren baitan murgiltzen eta mugitzen den guztia dun beharrezkoa izate oro posible izan dadin, tximeleta bakarraren joerak ekosistema osoa baldintzatu dezakeelako. Beldurrarentzat ez zagon tarterik, egunerokoa bizirauteko borroka dun eta alferrikakoak pajeo mentalak. Sena eta instintua ditun norbanakoaren oinarri eta, edo azkar ikasten dun edo hireak egin din: "El orden natural de las cosas no es casualidad."

Gureak botere-harremanak ditun, esplizituak zein inplizituak. Bakoitzak neurtzen eta aukeratzen din non kokatzen den, nahiz inkontzientea izan askoren hautua. Zergatik menpekoak erakartzen du boteretsua? Elkar behar dutelako. Dena konektatuta zagon eta, ni mugitzen banaiz, ezinbestean inguruak mugitu beharko din.

Iraultza kolektiboa iraultza pertsonaletik hasten dun, eta hori ematen ez den bitartean jarraituko dinagu diskurtso eta iritzi-artikulu ederrak eskaintzen munduari. Batzuek ez zakinagu futbolaz, eta zerbaitez hitz egin beharko dinagu, ezta? •

Apa Berrobi

Balioa mundua bezain borobila delako mugitzen ote du mundu erdia? Haizatutako esfera batean bizi gaituk gu ere, eta ez zekiat ba! Nire pasio handienetako bat izan duk urte askotan futbola, baina ez ikusteko, jokatzeko baizik. Makina bat jugada egiten zizkigutek bizitzan, eta guk horie buruz hitz egingo diagu, ezta? Ondo zegok.

Dena konektatuta dagoela esaten duk, baina konexioa eten egiten duk askotan. Hire inguru hirekin batera mugitu arren, askotan ez duk hire norabide berean mugitzen, ezta abiadura berean ere.

Menpekoak botereduna erakartzen omen dik, baina baita menpekoek elkar ere. Biok gaituk irakasle, eta ez al zaik horrelakorik ikustea gertatu? Seguru baietz. Horretan ere nik baino esperientzia handiagoa dauk. Menpekoak goikoa elikatzen dik, baina bi oilar oilategi berean eramangaitza duk. Umilazioak umilduta daudene, aldiz, elkar babesten ditek.

Norbanakoaren iraultzan sinisten duk hik. Fede handia duk horretan, eta gurtu egiten duk ahalegin hori. Hi pauso hori ematen ari haiz eta emaitzak ikusten dituk, eta bejondeiala Unai! Iraultza=revolución omen duk. Ni horrek ez naik asebetetzen, baina lurra ere irauli egiten ditek baserrietan, eta hori maite diat. Simaurra bota eta irauli. Golde asko falta dituk gure bizitzan, ordea.

Simaurra ongarrri ezinbestekoa duk gure baserriko baratzetan, baina asfalto eta zementu gainean ere

simaur asko zabaldu zigutek, eta hori ez duk ongarrri.

Nik uste diat, Unai, gure egoari hegoak falta zaizkiola gure egitean, ekitean, elitean. Askotan exit-ean gaudek. Umilatuak izateko beldurrez umildu egiten gaituk, eta umiltzetik amiltzera pauso bat baino ez duk egoten sarri.

Gaur jostari jaiki nauk, hitzekin jolas egiteko premia. Nire begininitan NI ikusteko desioak jota. Zer iruditzen zaik?

Aurreko batean Virginia Imazek Soledad Felozari egindako elkarrizketa irakurri nian, eta gure elkarrizketa honekin gogoratu ninduan. Guri zenbat aldiz galdetu zigutek "bertsolaria egin edo jaio"? Ipuin-kontalaria edo narratzailea egin ala jaio? Horixe zuan galderatuko bat, eta hona hemen erantzuna: Creo que las palabras son tan generosas que aceptan que nazcas en ellas o que seas adoptado. Ellas buscan bocas que las hagan viajar y les da igual que llegues recién nacido o maduro decrepito.

Gure baitan ere hausnarketa berriak jaio dituk eta oihartzun egin zigutek izatearen barne-hormetan. Garenaren eta izan nahi dugunaren artean bizitzera kondenatuak omen gaudek. Guk ere lugorritik luberrira pasa behar diagu. Goldea ez gorde.

Pozten nauk, Unai. Eskerrik asko niretik hitz egiteko aukera emateagatik, eta entzuteagatik. Geure buruari hainbeste opa eta zor genioan, ezta? Izan funtsa! •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Sorgin jaiak egitarau partehartzailea aurkeztu du San Pedroetarako

Asteazken arratsaldean, Sorgin Jaiak-eko batzordeak San Pedro jaietako egitarauaren aurkezpena egin zuen Jalgi kafe-antzekian.

Batzordeko kideekin batera, txosna gunean egingo diren ekintzen elkarteetako ordezkariak egon ziren, hala nola, Ostadar, Ttakun edo Bertso eskola, baita gazte jendea ere.

## Gune duina

"Herria sorgintzeko sekulako gogoekin gatoz. Izandako oztopo eta arazo guztien gainetik herria animatu, jai giroan sartu eta ilusioz bete nahi dugu," adierazi zuten.

Aurten jaiak, urte bete herriko erdialdetik aldentuta ospatuko dituzte, "herri guztia obretan eta hankaz gora den honetan" eta duela bi astera arte, gune duinik ez zutela salatu zuten. "Baina herriak erakutsi du bere duintasuna eta guztion artean, hemen aurkitzen garen elkarte eta herritarren artean, gune duin samarra lortu dugu," jakin arazi zuten.

## Elkarteen ekintzak

Batzordeko kideek egitarauari errepasso bat eman baino lehen, elkarteek haien ekintzak azaldu zituzten.

Honela, bertso eskolako kideek bertso saioa eskainiko dute astelehen arratsaldean.

Ostadarrek, berriz, igandearen goitibehera txapelketa eta kronoeskalada antolatuko



Elkarte eta gazteen babesa izan zuen Sorgin Jaiak batzordeak San Pedro jaietarako aurkeztutako egitarauak.

ditu. "Goitibeheratan parte hartzen dutenek kaskoa eraman behar dute" gogoratu zuten Ostadarreko kideek eta berrikuntza bat aurkeztu zuten kronoeskalada proban, Sorgin jaien gunetik hasiko dela.

Ttakunek Sorgin dantzak txosna gunean dantza egingo duela jakin arazi zuten. Era berean, Zikiro afaria eta Laiotzen kontzertua gunean egingo dituela.

## Egitaraua eta greba eguna

Ekintza hauei urtero antolatzen diren ekitaldi partehartzaileak, mus txapelketa, Oria ibaiko jaitsiera, etab., gehitu behar zaie. Baina, horietaz gain, aurten jaiak hasiera emateko, larunbatean 11:30ean, kuadrillen jaitsiera antolatu dute,

"jaiak hasiera koloretsu eta alaia emateko."

Txupinazioa 13:30ean izango da Sorgin jaien gunean. Eta bazkariaren ostean, olinpiadak izango dira, "aurten Gabiri eta Lizarrako herriak izango dira gonbidatuak."

Gaeagan, berriz, talde sorpresa egongo da, Laiotzen emanaldiaren bukatzean.

Beste berrikuntza batzuk izango dira, igande eguerdian, entsalada lehiaketa eta sagardo dastaketa.

Arratsaldean ere, erromeria izango da Trikihots eta Hitzartu taldeen eskutik eta gaeagan, Danba, Emon eta 3gabe2 taldeen kontzertua.

Astelehenean, umeen eguna ospatu nahi dute Sorgin Jai gunean eta horretarako,

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldia, haurrentzako bazkaria, jokoak eta danborrada antolatu dituzte.

Heldu eta gazteentzat, aldiz, Oriako jaitsiera, mus txapelketa, DZren emanaldia, Sorkunen kontzertua eta karaokea.

San Pedro egunean, "Sorgin Jaiak gehiengo sindikalak deituriko greba deialdiarekin bat egiten du, eta langilegoari kalera ateratzeko deia luzatzen dio." Aurrera begira, egun horretan egingo denaren berri emango du batzordeak.

Sorgin Jaietako gunean jarrera sexista, xenofobo edo faxistarik ez dela onartuko gogoratu zuten. Eta, azkenik, herritarrei jaietan parte hartzeko deia egin zieten. •

## KIROLA

### Santos Uribek Euskadiko txapelketa irabazi du

Beteranoen mailako Euskadiko Txapelketa, ekainaren 13an igandearen jokatu zen, Gasteizen.

Santos Uribe txapeldu izan zen 75 urtetik gorakoekin mailan, 5 km-ko marxa proban. Berritxo ere, domina irabazteaz gain, maiatzaren 23an lortutako Espainiako errekorra 37:25, hautsi du 36:05ko denborarekin.

Oso eguraldi ona izan zuten korrika egiteko. 15 gradu inguru izan zituzten, lainotuta zegoen eta haizer ik gabe, "eguraldi zoragarria" bere esanetan.

### Mosso memorialaren finala larunbatean honetan jokatu da

Ostadar K.F. antolatzen duen areto-futboleko XXVII. Mosso memorialela bukatu dago.

Lehiaketa hau ekainean zehar burutu da, kanporaketa sistemaren bitartez egin da eta herriko ligako talde guztiek parte hartu dute.

Kanporaketa ezberdinen ostean, ISU Leioak, IOB H.K., Epel eta Izkiña taldeak izan dira lehengo larunbatean, ekainaren 19an, txapelketako finalurrekoak jokatu dituztenak.

Lau talde horiek, larunbatean, ekainaren 26an, goizeko 10:30ean kiroldegian lehiatu den finaleko sailkapena jokatu dute. Ligako finala errepikatu daiteke, izan ere, larunbateko partidak ISU Leioak-IOB H.K. eta Epel-Izkiña izan baitira. •

## EUSKARA

### Bekak eskatzeko epea

Udaleko Euskara Zerbitzuak jakinarazten du, 2009-2010 ikasturtean euskara ikasi duten herritarrek beka jaso dezaketela.

Horretarako, interesatuek laguntza-eskaerak Udaleko erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dituzte.

Eskaera dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu behar da.

Eskaerako eta zinpeko deklaraziotako ereduak behar bezala bete behar dira eta eskatutako agiri guztiak aurkeztu.

Argibide gehiago nahi izanez gero, Euskara Zerbitzura jo daiteke, 943 376 184 telefonora deitu edo Udalaren web-orrian begiratu. •

# Somotori buruzko ikerketa batzordearen funtzionamendu okerra salatu du Ezker Abertzaleak

Somatora bidali ziren laguntzak ikertzeko Lasarte-Oriako Udalean martxan jarri den batzordearen funtzionatzeko modua salatu dute Ezker Abertzaleko Txanpi Baztarrak eta Joxe Goikoetxeak.

Bi zinegotzien ustez, Somotoko auditoriaren informea eta dokumentazio guztia jaso arte itxaron beharko litzateke, zenbait pertsonen galdeketa eta agerpenekin hasi aurretik, informazio interesgarria izango dela uste dutelako. Hori proposatu zuten ekainaren 8ko bileran eta batzordearen buru den Encinas PPko zinegotziak kasurik ere egin ez zenez, bileratik joan egin ziren.

Hain juxtu, PPko zinegotziari errespetua eskatzen diote, "ez gara zenbaki bat,

batzordera lanera gatozen zinegotziak gara".

Baztarrak eta Goikoetxea zinegotzien ustez, batzordearen lana argigarria baino harrigarria da, gertatutakoa argitu baino, eurak harritu egiten dituela funtzionatzeko moduarekin: martxoaren 23tik bi hilabete eta erdian batzordea bildu gabe egon da. Hala ere, idazkaria eta kontuhartzaileari galdeketa egiteko prest dira Somotoko auditoria eskura izan gabe. Ezker abertzaleko kideek ez dute parte hartu bileran, ez daudelako ados batzordeak hartu duen norabidearekin.

Hasieratik izan dira Lasarte-Oriako Udal Gobernuaren PSOEk kideen eta oposizioaren artean tirabirak.

Somatora bidalitako diru laguntzak ikertzeko eskatu zuten oposizioak eta PSOEk aldiz azken urteotan Udalak emandako diru laguntza guztiak ikertzeko.

Ikerketa batzordea osatzekoan zortzina kide izan dituzte PSOEk eta oposizioak PPko zinegotzia kontatu gabe. Beraz, PPko Encinas ordezkariaren papera funtsezkoa da, bera da batzordeko buru gainera. Eta bere lana gogor kritikatuko dute ezker abertzalekoek ez dituelako "ezertarako ere kontutan izaten, ez gaitu begien aurrean ere ikusi egin nahi. Berarentzako ez gara, Joxe, Txanpi eta Itziar zinegotziak. Berarentzako zenbaki bat gara" Batzordera lanera doazen pertsonak direla alda-

rrikatzen dute zinegotziek eta beraiek batzorde-buruari dioten begirune berdina eskatzen diote berari ere.

Bestalde, batzordea zuzentzerakoan duen jokabidea ere kritikatu du ezker abertzaleak "harrokeria kutsua ere ikusten diogu, dena arautu du, zein ordenatan hitz egingo duten, zenbat aldiz, erantzuteko aukera izango duten ala ez, ... Aurreko batzarrean ez zion alkateari erantzuteko aukerarik eman, jada aurretik hitz egin zuela esanaz. Guri noski ez digu ezer uzten".

Somoton, bost urtetako laguntzen auditoria egiteko eskatu zuten, soilik bi urtetakoa egin da baina informazio interesgarria aterako dela uste dute bi zinegotziek. •

# Ikasturte bukaerako ospakizunak Sasoeta-Zumaburu eta Landaberrin

- Larunbatean egin zuten Sasoetan jaialdia, euskal astearen egitarauko ekitaldi nagusia
- Aste bete lehenago, ekainaren 12an, egin zuten ospakizuna Landaberri ikastolan

Lasarte-Oriako eskoletan udako oporren aurreko azken egunetan dira neska-mutilak eta ikasturte amaierako jaialdiak egin dituzte azken egunotan. Landaberri ikastolan ekainaren 12an ospatu zuten jaialdia ikasle, irakasle eta gurasoek. Sasoeta-Zumabururik aldiz asteazkenera bitartean Euskal Astea burutzen ari dira 'Euskarak ez gaitu beldurtzen' lelopean eta egitarauaren ospakizun nagusia, pasa den larunbateko jaialdia izan zen.

## TXINTXARRI

**Sasoeta-Zumaburu ikastetxe-ko ikasturte amaierako jaialdian denetarik izan zen. Egun guztiko festa antolatu zuten, goizean goiz tailer eta jokuekin hasi, bertan bazkaldu eta karaoke, diskoteka eta festa handi batekin amaituz.**

Goizean, taloa eta txorizoa eskaini zuten Sasoeta-Zumaburu eta ikusgarria izan zen emanaldi zabala ere. Hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izan zuten bata bestearen atzetik: perkusioa eta dantza afrikarra,

gimnasia erritmiko erakustaldia, 4. eta 5. mailakoen bestsoak, Hipo eta Tomax pailazoaren "Beldurraren etxean" ikuskizuna eta guraso, irakasle eta ikasleentzako dantzen aurretik, Koru Etxeberria omendu zuten.

Arratsaldean aldiz, karaokea, puzgarriak, zezen mekanikoa eta festa amaieraren aurretik diskoteka izan zuten.

Landaberri ikastolan ere, aurreko astean ez zen giro bikain eta umorerik falta izan, ikasturte amaierako ospakizun-jaialdian. Gurasoek ederki pasa zuten euren haurren musika eta dantza emanaldiak ikusten. •



Landaberriko jaialdian, ikasleek dantzan egin zuten beste ikasle, irakasle eta hainbat gurasoren aurrean.



Sasoetako gurasoen elkarteak opari eta lore sorta eman zioten Koruri.



Gustura egon ziren Sasoeta-Zumaburuko ikasleak Hipo eta Tomax pailazoaren "Beldurraren etxean" lana ikusten.



Koru Garmendiari bertso bat kantatu zioten Sasoeta-Zumaburuko irakasleek.

## Zuzendari aparta, emakume zoragarria

**Sasoeta Zumaburu ikastetxearen larunbatean burutu zen jaialdian, 16 urtez zuzendari izandako Koru Garmendia irakaslea omendu zuten. Ondorengo testua eskaini diote agurtzeko.**

1987ko irailean zure ibilbide profesionalarekin jarraitzeko Lasarte-Oriako herrian Sasoeta izeneko ikastetxera iritsi eta bertan haur hezkuntzako ikasleekin lehen urratsak ematen hasi zinen. Ziur atzo izan balitz bezala gogoratzen dituztela neska-mutiko haiek

andereño jator haren irribarre, muxu eta lana! Atzo izan balitz bezala gogoratzen ditugu geuk ere, zurekin batera lan egin genuenok, zure kezka eta ilusioa!

Urteak pasa ahala eta adoretzu zure konpromisoari heldu diozu beti eta zuk hainbeste maite dituzun herria eta hizkuntza bultzatu asmoz, ausart eta beldur gabe eskolako zuzendari izatera igaro zinen. Eskerrik asko!

16 urte zuzendaritzan egin ondoren zaila da deskribatzea

egin duzun lan itzela orri ziztrin honetan, zure lanak liburu bat merezi baitu gutxienez, zeinak pozez, negarrez, kezkez, beldurrez, irriz, algarez, nekez, haserrez, ilusioz eta konpromisoz beteko lituzkeen edozein irakurleren bihotzak.

2010. urtera iritsita, zu zaren kide, lagun ona eta emakume zoragarriak kapitulu berriak erantsi behar dizkio oraindik bukatu ezin den liburuari.

Aro berri honetan, zorte on, Koru!



Patxi Altuna eta haren semea Zubietako elizaren maketaren ondoan solasean.



Ostegunean, herritar ugari bildu zen Lasarte-Oriako etxe zaharren erakusketaren irekieran.

Etxe baten maketak oroitzapen asko ekarri eta solasaldiak ireki ditzakela argi geratu zen ostegunean erakusketaren inaugurazioan.

Patxi Altuna herritarrak Lasarte-Oria eta Zubietako hainbat eraikuntzen maketak egin ditu eta erakustaldiko irekierara hurbildu ziren lagun, senitarteko eta udal ordezkari

rien gogoetara txikitako bizipenak etorri ziren.

**Iraganeko Lasarte-Oria**

Nogeseko etxea, Pilar anderriaren eskola, hilerri zaharretako sarrera bere inskripzio eta

guzti, tren geltokia, golf zelaia, Hipodromoko Erregeen tribuna eta popularra... lan gehienek Lasarte-Oriaren iragana erakusten digute.

Izan ere, herrian ez dauden eraikuntzak ikusi daitezke

erakusketara berezi honetan.

Argazki zaharretan oinarritu da Patxi Altuna eta horrek maketek perspektiba ezberdinak izatea dakar. Lan handia, beraz, lasarteoriatar honek erakusten duena.

Hala ere, gaur egun mantentzen diren eraikuntzen maketak ere badaude, Udaltxetxe Eskola Nazionala zenean edo Zubietako eliza.

Lasarteko etxebizitzak nolakoak ziren ikusi edo gogoratu nahi dutenek Manuel Lekuona kultur etxeako kafetegian San Pedro egunera arte dute ikusgai erakusketak. •

# Oroitzapenak



Oroitzapen txarrak erretzeko aukera izango dute herritarrek asteazkenean Andatza plazan egingo den San Joan suan.

## Iritsi da San Joan bezpera

Bukatu da udaberria, eta beraz, eguraldi txarrak atzean utzi eta udako giroaz gozatu hasteko garaia da.

Urteko gau motzenak heldu dira, eta egun motz hauen artean motzena omen dena, San Joan bezperako gaua ere iritsi da.

Asteazkenekoa gau magikoa da, oroitzapen txarrak erre eta horiek ahazteko gaua. Eta horretarako, Euskal Herriko bazter guztietan San Joan Sua pizten da.

Gure herrian ohitura den legez, hainbat ekitaldi burutuko dira gau berezi hori ospatzeko.

**Dantza eta kalejira**

Lehenik, eguraldiak laguntzen badu, 21:30ean, Udaltxetxe aurrean Zortzikoa dantzatuko dute Erketz DTko lagunek.

Ostean, Udal zinegotzi eta dantzariak Andatza plazara kalejira egingo dute haiekin biltzen diren herritarrekin batera.

**Sokadantza eta sua**

Ohikoa denez, Andatza plazako sua piztu baino lehen, Erketzeko dantzariak sokadantza eskainiko dute eta jarraian, fandango eta arinarina dantzatzera gonbidatuko dituzte bertan bildutako herritarrak.

Ostean, sua piztuko dute eta kalejira egingo da.

Suaren garretan erreko dituzte herritarrek urte honetako gaua txarrak, eta bide batez ahaztu ahalko dituzte. •

#Gipuzkoa

## Krisiaren aurkako 2010 Plana

100 milioi euro

Tecnologia eta  
berrikuntza

Gipuzkoan badugu Plana:

Zientzia eta teknologiako azpiegiturak garatzea eta berrikuntzaren aldeko apustua egitea, merkatu globalean lehiakortasun handiagoa izateko.

zurekin, aurrera

Igor Artamendi Neurtu enpresako bazkidea

# ‘Ezezaguna zaren merkatu batean burua sartzea oso zaila da’

■ FPko ikasleek sortutako ekimenak Gipuzkoako enpresa onenaren saria jaso du ■ Urratsbat proiektuaren barnean eratutako enpresa izan da Neurtu ■ Topografia enpresa da Neurtu

Igor Artamendi lasarteoriatarra eta Unai Bengoa donostiarrak Neurtu enpresa sortu zuten duela urte eta erdi. Irungo FPko Bidasoa Institutuan topografia ikasketak burutzen ari zirela hasi ziren Neurturen nondik norakoak ezartzen. Urratsbat erakundeak ekintzaile gazteak laguntzen ditu euren proiektua gauzatzeko. Horretan murgildu eta azkenean, Gipuzkoako enpresa onenaren saria eskuratu zuten.

ITXASO MORENO

**E**npresa berria dugu oraindik Neurtu proiektua. 2008/2009 ikasturte bitartean sortutakoa eta mar txan jarritakoa. Ilusioz ekin zioten Neurturi Igor Artamendik eta Unai Bengoak. Baina merkatu ezezagun batean sartzeak eta krisi ekonomikoak, gauzak zailtu egin dizkio. Hala ere, hor ditugu aurrera ateratzeko ahaleginean. Gu Igorrekin bildu gara Neurtu zer den ezagutzeko, eta jasotako sariaz jarduteko.

## Zer da Neurtu?

Eraikuntza sektoreko hainbat enpresei, nahiz erakunde Publiko, Foru Aldundi, Udal eta partikularrei zerbitzu topografikoak eta delineaizio zerbitzuak eskaintzea helburu duen enpresa. Topografia klasikoak dira, erakusteko modu erakargarriagoa, inbentario batekin doazanek. Datu baseen antzera funtzionatzen dute, kontsultak egiteko aukera emanaz. Sistema berria bada ere, guk zerbitzua eskaintzen dugu.

## Zer dira GISak?

Geografi informazioa ematen duen sistema da. Plano polita goak dira, erakusteko modu erakargarriagoa, inbentario batekin doazanek. Datu baseen antzera funtzionatzen dute, kontsultak egiteko aukera emanaz. Sistema berria bada ere, guk zerbitzua eskaintzen dugu.

## Eta zer da topografia?

Jendeak askotan galdetzen digu. Zuek zer zarete tripode batekin ibiltzen zaretenak? Bai bai, horiek gara gu. Gure lanean distantziak eta angeluak neurtzen ditugu. Lehen zailagoa zen, kalkulagailuarekin ibili behar ginen distantziak neurtzeko, baina orain aparatu berriekin dena errazagoa da. Botoiari eman, eta

bulegora joaten zarenean pantailan jada puntu guztiak ateratzen zaizkigu. Puntu guzti horiek elkartu, eta azkenean, bezeroari aurkezten diogun plano a ateratzen da.

## Noiz sortu zen Neurtu?

Orain dela urte eta erdi sortu genuen Urratsbat erakundearen laguntzarekin. 2008ko urrian eratu genuen. Merkatu azterketa egin eta gero.

Zikloko ikasleak ginen Unai eta ni, eta hasieratik geneukan pentsatuta zerbait egitea. Nahiko argi izan genuen sortu nahi genuen enpresa tipoa.

Ikasten ari ginela primeran zihon enpresa, lan pila izan genuen, baina krisia hasi zenezan behera etorri zen.

## Zer da UrratsBat?

Gazte ekintzaileak laguntzen dituen erakunde. Txarla ematen dizute zure proiektua aurrera eraman ahal izateko. Halaber, erakunde koordina-tzaileak zure gainean dituzu habian jarri behar duzun proiektuan babesa eta laguntza emanez. Sortzeko dauden enpresei aholkularitza ematen diete. Lan munduak nola funtzionatzen duen ere esplikatzen egiten dizute. Beti ere, FPko ikasleei zuzenduta.

## Gipuzkoar enpresa onenaren saria irabazi duzue, zorionak! Espero zenuten?

Ez genuen espero baina ondo hartu genuen. Nahiko urduri jarri ginen. Jende aurrean hitz egin behar hori, gure proiektua ahoz guztiei azaltzea...

Enpresa asko aurkeztu ziren, baina gehienak itxurazko enpresak ziren, eta hauentzako sari txikiak izan ziren. Gurea martxan zegoen jada, eta Bizkaiko eta Arabako beste bi enpresekin gu izan



Gipuzkoar enpresa onenaren saria lasarteoriatar batek eta donostiar batek irabazi dute Neurtu enpresari esker

ginen saridunak. 3000 euro, sari polita da.

## Nolatan aurkeztu zineten?

Gure Urratsbateko koordinatzaileak esan zigun lehiaketa bat zegoela eta bertan parte hartzeko. Egia da esperantza gutxi genituela. Gure enpresa sortzeko egindako txostena txukundu, buelta bat eman eta hobetu genuen. Merkatuaren ingurukoak jada ezagutzen genituen.

## Diru saria inportantea...

Baina guk diru saria baino errekonozimendua espero genuen, publicitate. Saria irabazi izan hori nahiko gordea geratu dela iruditzen zaigu. Azkenean, FPko ikasleak gara garaileak, eta badi-rudi horrek sariari balioa kentzen diola.

## Zer eskaintzen du Neurtuk?

Denetatik eskaintzen dugu.

Adibidez, lur sailak dauzkan batek, bere ondokoarekin arazoak baldin baditu mugak non diren adosteko, guk neurketak egin eta bakoitzaren zatiaren mugarriak zeazten ditugu.

Lur eremuen planoak eta distantziak neurtzen ditugu.

## Nola jarri daiteke jendea zuekin kontaktuan?

Web orrialde bat daukagu, [www.neurtu.com](http://www.neurtu.com).

Bertan orain arte egin ditugun lanen aurkezpena egiten dugu, gure instrumentuei buruzko argibideak eta nortzuk garen azaltzen dugu. Kontakturako modua ere azaltzen da.

## Aipatzeko lanik?

Lan batzuk egin ditugu, baina gehienak kolaborazioak izan dira. Gurekin kontaktuan, zuzenean oso gutxi jarri dira, beste enpresen bitartez lortu

ditugu lanak. Zaila da ezezaguna zaren mundu batean sartzea.

Lasarte-orian lan batzuk egin ditugu. Adibidez, DIA inguruan egin behar dituzten etxebizitzaren terenoari buruzko estudio topografiko bat eskatu ziguten. Oria ibaian uholdeak sortzeko arriskua ere aztertu genuen.

Orain lan garrantzitsu baten zain gaude, GIS horietakoa izango litzatekeena.

## Lasarte-Orian duzue egoitza...

Pentsatu genuen Donostian jartzea, bertan diru laguntzak ematen dituztelako, baina azkenean nik hemen etxea nunez hemen jarri genuen.

## Nola ikusten duzu enpresaren etorkizuna?

Aipatu bezala 2008an hasi ginenean gauza primeran zegoen, aurrean nahiko geldi geratu da dena. Eta orain, ematen du berriro mugitzen hasi dela merkatua. Momentu hauetan beste topografoei esker ari gara lanean.

Baina hasierak zailak baldin badira, eta aurrera egitea lortu badugu, orain ere lortuko dugu . •

“FPko ikasleei emandako saria izanik errekonozimendu gutxiago jasotzen du gizartearen partetik

Informazio gehiago [www.neurtu.com](http://www.neurtu.com) web orrialdean

## Egunero

### Erakusketa

MUNDU BAT, MILAKA AURPEGI, Aitzol Etxegoien lasarteoriatarren argazki erakusketa. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.



### Erakusketa

LASARTE-ORIAKO ETXE ZAHARREN MAKETEN erakusketa Patxi Altunaren eskutik. Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.



## Astelehena 21


### Euskal Astea

IRTEERAK antolatatu ditu Sasoeta-Zumaburu ikastetxeak Euskal Astearen barruan. Lasarte-Oria inguruan ibiliko dira: Mini Gloferra, Sta Barbarara Azkorterara, Plazaola bidera... Asteartean berriz HERRI KIROLAK izango dituzte eta asteazkenean SAN JOAN SUA egingo dute.

## Ostirala, 25

### Kontzertua

OREINDIK (Funk, rock) eta LAUROBA (Pop rock) taldeen emanaldia. Jalgin, 23:00etan.



## San Pedro jaiak ederki hasteko bezperan Erketzen dantza emanaldia

ERKETZ Dantza Taldeak emanaldia eskainiko du San Pedro jaiak direla eta.

EKAINAREN 25EAN, OSTIRALA  
KULTURETXEAN 22:00ETAN

## Asteazkena, 23

### Dantza

SAN JOAN ZORTZIKOA dantzatu da Udaletxe parean. Ondoren, Udalbatza, Erketz EDTko dantzariak lagun dituela, Andatza plazarantz abiatuko da, eta, han, SOKA-DANTZA tradizionala dantzatuko dute. 22:00etan. SAN JOAN SUA piztu-ko dute plazan bertan.



## Oharrak

### Odol ateratzek

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzek egingo dituzte Osasun Zentroan ekainaren 21ean, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

### Sorgin Dantzaren entseguak

Urtero bezala, Ttakunek San Pedro jaietan antolatzen duen Sorgin Dantzan parte hartzerko entseguak antolatu dira ekainaren 8an hasita, astearte eta ostegunetan 20:00etan Landaberri Garaikoetxeako aterpean.

### Gasolina merkeago Aterpeko txartelarekin

Aterpeak, Lasarte-Oriako Merkatarien elkarteak kanpaina berri jarri zuen martxan asteartean. Honetan, Oriako Allerru gasolindegian despositua bete eta Aterpeko txartelarekin ordaintzen duten herritarrek, %2ko beherapena izango dute haien ordaintzetan.

### Sorgin Jaietako materiala

Sorgin jaietako materiala salgai, asteartero, ostegunero gasolindegian Okendo parean, Geltoki kalean. Zapiak dagoeneko salgai daude.

### Udako ikastaroetan izena ematea

Kirol Zerbitzuak jakin arazten du, heldu, zein umeentzako udako ikastaroetan izena emateko epea ekainaren 7an ireki zela.

Informazio gehiago eskuratzeko edo izena emateko bi aukera daude, kiroldegiko

bulegora hurbildu, goizeko 10:00ak eta 12:30ak artean edo 17:00etatik 19:00etara, arratsalde; edo 943 376 182 zenbakira deitu.

### Igerilekua itxia

Haurrentzako antolatu den ureta festa dela eta, ostegunetan, ekainaren 24ean, 09:00etatik 12:30etara igerilekua itxita egongo da, helduentzat.

### Futbol eskolan izen emateko epea zabalik

Futbol-eskolako izena emateko epea zabalduko da ekainaren 14tik 25era. Izena emateko Ostadarreko bulegotik pasa behar da arratsaldetan, 19:00etatik 20:00ak bitartean.

### Txakur-hezkuntzako lantegia

Sanitateko Departamentuak txakur-hezkuntzako lantegia antolatu du. Doako lantegi honek bi atal izango ditu, bata teorikoa, uztailearen 8an kulturetxeko hitzaldi aretoan eskainiko dena eta beste praktikoa, uztailearen 9an, Atsopakarko zelaian, txakurlarunbatero Okendo parean, Geltoki kalean. Zapiak dagoeneko salgai daude.

### Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintzarri@txintzarri.info

## Eskutitzak

### Hondarrak ez erre

Hermanin atez ateko bilketa jarri denetik konturatu naiz, papera, beira, plastikoa eta organikoa bereizi eta gero zein zabor gutxi geratzen den. Eta errefus apur hori erretzeko ez dago 400 milioi euroko errauste planta eraldorik egin beharrik. Badago diru hori zertan erabili.

Merezi du ahaleginak. Oso erraza da. Etxean lau ontzi jarri eta bakoitzean dagokion gaia botatzea besterik ez da. Gipuzkoar guztiok hau eginda, ez da zaborrik erre beharrik izango. Alternatiba hor dago.

Edukiontzietan bildu daiteke edo atez ate. 5. edukiontzia jartzea ez dago gaizki, baina une honetan ez da nahikoa. Atez ateko sistema jarri den hiru herrietan

ehuneko 80 birziklatzera erraz iritsi daitekeela frogatu dute. 5. edukiontziaarekin hori lortuko balitz, ondo legoke, baina oso urruti dago, borondatez oraindik, hainbat kanpaina egin badira ere, herritar gehienek ez dute bereizten eta.

Beraz ez dago besterik. Papera, beira eta plastikoa birziklatu eta berrirori erabili baldin badaitezke, eta organikoa konpostegian lurrunentzat ngarri bihurtu baldin badaitezke, gaur egun ez du zentzurik zaborra poltsan bereizi gabe atera eta zabor-tegira eramateak eta are gutxiago, hondakin guztiak elkarrekin erretzeak.

Erraustegia egiten bada, tximiniatik aterako den kea eta labeen geratuko diren errausak, azken finean, toxikoak dira, kutsadura. Probatu nahi duenak zabor poltsa

batzuk pilatu eta eman sua, plastiko eta beste hondakinek sortutako ke eta hondarrak zein desatseginak eta osasunarentzat zein arriskutsuak diren, eta ingurua zenbat kutsatzen duten ikusteko.

Atez ateko bilketaren inguruko zalantzak dituen etorri Hernanira, Usurbilera edo Oiartzunera. Hiru herri hauetako esperientzia espero mugimendu zabal eta eman-ko baten hasiera besterik ez izatea. Ahalegina Gipuzkoa osora zabalteak onura besterik ez digu ekarriko. Horregatik nago moratoriaren alde, erraustegiaren proiektua sei urte gelditzearen alde. Etxean norberak sortzen duen hondakina bereizi eta ez da erre beharrik izango. Organikoa berrirori lurrunari itzuliko zaio ngarri moduan.

Jon Altuna

## Dagokionari



### Anbulatorio azpiko parkaleku berria

Herritar baten kexu bat iritsi zaigu. Badirudi ambulatorio berriaren azpiko parkaleku berritik ateratzeko arazoak daudela. Askotan ez da hesia irekitzen, beraz udaltzainei deitu behar zaie irekitzeko. Telefono mugikorrik eskura izan ezean, udaletxera bertara joan behar zara udaltzaingoari abisatzeko. Arazoa lehen bailehen konpontzeko eskatzen du.

Lasarteoriatar baten kexa

# Egunen batean, EZ da berri honen beharrik izango; imajinatzen duzu?

ATZEGI elkartearen kanpaina berriak etorkizunari begiratzen dio

NEREA EIZAGIRRE

**A**TZEGI elkarteak 50 urte daramatza adimen urritasuna duten pertsonen aldarrikapen alde lanean. Urteurren honi begira, kanpaina berezia jarri dute martxan, honi buruz eta egungo egoerari buruz gehiago jakiteko elkarteak kide diren Yrma Ayerra eta Alex Tetuane-kin bildu gara.

*Egunen batean ez dugu kartel honen beharrik izango, Imajinatzen duzu?* lelopean ATZEGI elkarteak. Helburua adimen urritasuna duten pertsonen gizareratzea lortzea dela azaldu digu Alexek, "utopia bat da baina hori islatu nahi da. Imajinatu guztiakin harreman normalak eta koardrila izatea."

Era berean, "duela 50 urte elkarte sortu zuten pertsonen omenaldia ere bada" atxiki du Yrmak, "lanean hasi zirenean imajinatu ezin izan zutena lortu da. Haiek zerbait oinarrikoaren alde egiten zuten; egun gauza asko lortu da eta askotan nahikotzat jotzen dugu."

Baina, kanpaina hau bul-tzada bat dela onartu du, "etorkizunean lortu nahi dena ikusteko" "Pausuak ematen dira, baina helburu finala lortzeko asko geratzen da oraindik," gogoratzen du Alexek.

## Lan mundua eta hezkuntza

Biek diotenez, lan munduan eta hezkuntza mailan momentu garrantzitsua da gaur egungoa.

"Lehen Hezkuntzan gauza asko lortu da, ikasgelan Hezkuntza geratzen zaigu, hori inorena ez den lur batean egotea da urritasuna duten haurrentzat" adierazi du Yrmak.

Izan ere, aitortu duenez, "helburua ez da nire haurra unibertsitatean egotea. Nire helburua hark dituen gaitasunen arabera aukeratu ahal izatea da. Esate baterako, ez da normala Pablo Pineda bat izatea."

"Europa mailan, Pablo Pineda bakarra da Unibertsitatean joan eta bi karrera egin dituen. Izan ere, guri hitzaldi batean azaldu zigutenez, gehienez pertsona normal baten gaitasunen %60a garatzen dute" azaldu du Alexek.

"Salbuespena da, baina horrek ikusarazten digu, agian baten batek ahal duela. Zergatik ez?," atxiki du Yrmak.

Lan munduari dagokionez, Udalarentzat lanean dagoen Jon Roncero herritarraren kontratazioa aurrera pausu bezala ikusten dute, "nahiz eta urte beteko kontratua izan eta lanaldi laburra gizareratzean pausu bat da."

## Harremanak

Izan ere, biek onartzen duten bezala, urritasuna duten pertsonen familiako kideekin dute harremana.

"Ezin da gizartea aldatu. Gizartea indibidualista da gurea eta selektiboa," adierazi du Alexek.

Horregatik, haurrek ezagutzen dituzten eremuak dira garrantzitsuak, "eskolan agian izkina batean dago eta gelakoek eta irakasleek ongi ikusten dute, baina hori ez da ona. Besteekin harremanak izatea litzateke onena," azaldu du Yrmak, "Izan ere, nik nire haurrak aukera dezala nahi dut, bere lagunekin atzeratzea, familiarekin egotea..."

Era berean, Alexek gurasoen garrantzia azpimarratzen du ere, "asko babesten dituzte

haien haurrak. Haurrak mugatuak daude eta gurasoek ere mugak jartzen dizkiete."

## Bolondresak eta Atzegizalea

Elkarteari eta urritasuna duten pertsona hauen gizareratzean laguntzeko, kanpainen edo ekintza berezia batean parte hartu, zure denbora eskaini, dirua eman dezakezu edo Atzegizale izan zaitezke. Lasarte-Orian esate baterako, "50 bazkide daude, 47 laguntzaile eta 101 Atzegizale, iazko datuen arabera".

"Besteak beste, bolondres edo laguntzaileak oso garrantzitsuak dira gure elkartearen. Horregatik, iazko kanpaina haiei eskerrak emateko egin zen," aipatu digu Yrmak, "gauza txikiak dira batzuetan eta bakoitzak hartzen du nahi duen konpromisoa. Bolondresek gauzak ezere truke egiten dituzte eta diru ordaina ez dagoenena, gauzak beste era batera egiten dira."

Izan ere, ATZEGIko aisialdiko txokoetan, Txolarteetan lan garrantzitsua egiten dute. Baina ez hori bakarrik, gauza puntaletako bolondresak era badira, "adibidez, gure mutil-tako bat Realaren bazkide zen eta bolondres bat zegoen futboleko jarraitzaile sutsua zena. Lagunak egin eta Reala ikustera doaz," aipatu du Yrmak.

Honela, udako bidaietako laguntzaileak behar dituztela jakin arazi digute, "Gipuzkoako taldea asko mugitzen delako."

Bestalde, Atzegizalea izatea zer den azaldu digute, "ez da konpromisoa, jarrera bat da. Oinarrikoa laguntza ematea, kalea gurutzatzen laguntzea agurtzea da. Honek gizareratzean laguntzen du."

## Urteurreneko ospakizunak

Baina kanpaina gain, ATZEGIko 50. urteurrena ospatzen du aurten eta horretarako hainbat ekitaldi egingo ditu.

"Elkarteari jarri dituen kartelen erakusketa egingo da, Gipuzkoan zehar ibiliko dena. Elkartearen beharrik eta pausuak zeintzuk izan diren ikusi daiteke horien bidez," azaldu du Yrmak.

Erakusketa herrian egiteko asmoa azaldu dute eta Alexek "karteletan, gainera, bi lasarte-oriatar daude, Jon Roncero eta Asier Berraondo," azpimarratu du.

Honetaz gain, urte amaieran, Kursoal aretoan jaialdia antolatuko dute.

Elkarteari buruz eta kanpainari buruz, informazio gehiago nahiez gero, [www.atzegi.org](http://www.atzegi.org) orrialdean aurkitu dezakezue. •



## IMAJINATZEN duzu?

*"Nere herriko lantegiren batean lan egiteko modua izango dudalako"*

*"Zer ikasi nahi dudan aukeratu ahal izango dudalako"*

*"Senargaiari musu emateko modua izango dudalako kalean, inor ere harritu gabe horregatik"*

*"Babes Ofizialeko etxea izateko modua izango dudalako"*

*"Jendeak nirekin hitz egiteko modua izango duelako; jakingo baitute, nire erara, ulertu eta erantzungo diedala"*

Sar zaitez [www.atzegi.org](http://www.atzegi.org) orrian eta babes ezazu pertsona hauek imajinatzen dutena, edo esan zer imajinatzen duzun zuk.